

EUSKARA PLAZERETIK

Lapurdiko Getariako Uhanderea eskolako kazetari txikiak, sarituak

 **JENDARTEA** / Haritz Larrañaga

Euskara irakaslearen ideia izan zen hedabide elebidun bat sortzea Uhanderea eskolan. «Getaria'Part» izeneko irratian herriko berri ematen dute 8 eta 11 urte bitarteko kazetariak, frantsesez eta euskaraz. Jolasaren eta plazeraren hariaz josten dituzte bi hizkuntzak, ia konturatu gabe. Eta hori gutxi ez eta Bordeleko akademiak antolatutako «Mediatiks 2020» lehiaketan sari bat jaso berri dute.

Grabagailu bat eta gogoa, horiek izan dira Getariako Uhanderea eskola

publikoko ikasleek behar izan dituzten osagai nagusiak Bordeleko akademiak antolatutako «Mediatiks 2020» lehiake-

tan saria irabazteko. Gauzak horrela, Lapurdiko kostaldeko herrien artean biztanle gutxien dituen herrixkan, sari handi bat jaso dute 8 eta 11 urte bitarteko ikasle txikiek.

Getariako Uhanderea eskola publikoko hamar ikasle horiek «Getaria'Part» izena jarri zioten hedabide elebidun bat

sortu zuten ikasturte hasieran eta beste edozein hedabide bezala funtzionatzen ari dira ordutik. Antolatze modua eta jarduteko era beste edozein hedabideren antzekoa da, baina kasu honetan kazetariak oso gazteak dira eta lanerako dituzten bitartekoak oso urriak. Hala ere, Getariako

aferen berri ematen dute eta, gainera, sari bat irabazi dute.

Astelehenero biltzen da «Getaria'Part» hedabideko erredakzioa. Hamar kazetari txiki eta erredakzio burua, Michael Alcibar, haien euskara irakaslea. Asteazkenean zehar zein gai jorratuko dituzten eztabaidatzen dute lehenik, eta, jarraian, ardurak banatzen dituzte. Batek argazkiak lortu behar ditu, besteak elkarrizketatu behar duten pertsonarekin harremanetan jarri behar du, beste batek gaiaren inguruko informazioa bilduko du, besteak testuak landuko ditu... Horrela, talde lanean, astero jartzen dituzte haien erreportajeak blogean.

Norabide editoriala ere ikasleek finkatzen dute, baina irizpide batzuk jarraitu behar dituzte. Hala nola, Getariako herriari lotutako gaiak jorratzen dituzte eta eduki guztiak euskaraz eta frantsesez argitaratu behar dituzte. Beraz, oinarritzko irizpideak kontuan hartuta, gaiak haurrek bereak hautatzen dituzte.

Aitzitik, ideia berririk ez badago edo proposatutako gaiak lantzeko zailak badira, irakasleak esku hartzen du gaia zehaztu eta lanak zuzentzen laguntzeko. «Gehienetan haien



Irudian «Getaria'Part» irratiko erredakzio gaztea. 8 eta 11 urte bitarteko hamar ikasle osatzen dute saritua izan den komunikabidea.
GETARIA'PART

ideietatik abiatzen gara, baina batzuetan nik ere luzatzen ditut proposamenak, zeren sarritan gai oso zabalak hautatzen dituzte eta ulertarazi behar zaie gaia zehaztu behar dela», azaldu du Alcibarrek.

Euskarako irakaslea izan zen udan zehar ideia eduki eta ikasturtea hasi zenean ikasleei egitasmoa proposatu ziena. Iazko udan egin zuen gogoeta eta hiru erronka nagusi finkatu zituen: «Nola irakatsi euskara nire ikasleei modu desberdin batean? Nola uztartu belaunaldi horrek teknologia berriekin duen harremana proiektuan? Nola sortu harremanak frantsesaren eta euskararen artean?».

Haurrek gogotik jaso omen zuten irakasleak luzatutako erronka. Horrela kontatzen du Alcibarrek egitasmoa hurrei nola aurkeztu zien: «Haurren harrera ona izan zen. Niretzat ere zerbait berria zen. Udan sortu nituen bloga, logoa eta izenburua, eta proiektuaren helburua ere finkatu nuen, hau da, hedabide bat sortzea euskara eta frantsesa landu eta aldi berean ikasleek plazer hartzeko. Baina hortik aurrera dena egiteke zegoen, beraz, ikasleei galdetu nien zer egin nahi zuten, eta aski fite jarri ziren lanean».

Haurrak motibatuko zituen zerbait izan zitekeela uste zuelako erabaki zuen Alcibarrek ikasleekin hedabide bat sortzea. Izan ere, irakaslearen esanetan, «lehen haurrek kirolari, mekanikari edo mediku izan nahi zuten, baina oraingo haurrek blogari, youtuber edo *influencer* izan nahi dute».

Getariako Uhanderea eskola publikoan 3 eta 11 urte bitarteko 140 ikasle inguru dituzte uneotan. Ez da eskola handia, beraz. Talde txikia izanda



Euskara irakaslearen ideia izan da egitasmoa.
«Nola irakatsi euskara modu desberdin batean?
Nola uztartu belaunaldi horrek teknologia
berriekin duen harremana proiektuan?»

Udan sortu zituen bloga, logoa eta izenburua,
eta proiektuaren helburua ere finkatu zuen:
«hedabide bat sortzea euskara eta frantsesa
landu eta aldi berean ikasleek plazer hartzeko»

Goiko irudian Michael Alcibar, Getariako eskolako euskara irakaslea eta proiektuaren sortzailea. Guillaume FAUVEAU

proiektua gauzatzeko zailtasun gutxiago izango zituela pentsatu zuen Alcibarrek, eta, esperientzia gauzatu ostean, baieztatu du hamar ikasleko taldea izatea kopuru egokia dela.

LEHIAKETA, MOTIBAZIOA

Bordeleko akademiak antolatzen duen Mediatiks lehiaketan parte hartzea ere, bitarteko bat zen ikasleek helmuga batera iristeko motibazioa izan zezaten. «Proiektua lantzen ari nintzenean Interneten begiratzen nituen ereduetan ikusten nuen guztiek Bordeleko lehiaketan parte hartzen zutela eta ideia ona iruditu zitzaidan ikasleek motibazio bat izan zezaten», argitu du irakasleak.

Lehiaketara aurkezteko, guxtienez hamar artikulu aurkeztu behar zituzten haien hedabidean, eta guxtienekoa ezarri ostean lanari ekin zioten buru-belarri. Urtarrilerako bete beharreko baldintza guztiak betetzen zituen egitasmoak eta lehiaketan parte hartzeko tramite guztiak burutu zituzten.

Albisteak maizatzeko azken astean jaso zuten. Posta elektronikoko mezu baten bitartez hiru sarrituen artean zirela jakinarazi zien Bordeleko akademiak Getariako kazetari txikiei. Diploma bat jaso zuen lantaldeak, baita zenbait aldizkaritako harpidetzak eta prentsari lotutako hainbat liburua ere. Alcibarrek eman zien albisteak irabazleei: «Haurrak biziki kontent jarri ziren eta ni ere bai. Sariak, gainera, egokiak ziren gaian sakontzen jarraitzeko».

Kritika edo aholku bakarra jaso dute Bordeleko akademiaren eskutik, ahotsak grabatzerakoan bestelako zarata



edo arnas estuak ekidin dai-
tezkeela. Irakasleak gustura
jaso du gomendioa, izan ere,
«esaten nien grabaketan lasai
egon behar zirela, orriak mu-
gitu gabe, zaratarik egin ga-
be... Noski, oso zaila zen, beti
mugitzen ziren-eta! Azkene-
an, jasotako kritika horrek nik
esandakoa gotortu du».

SARIAREN BERRI ITXIALDIAN

Saria itxialdia amaitzeaz zela
iritsi zen, baina itxialdiak
iraun zuen artean ere “Geta-
ria’Part” irriatiak Lapurdiko
kostaldeko etxeetara heltzen
jarraitu zuen. Irakaslearentzat
lan gehigarri bat izan da eta
ez dela erraza izan aitortu du,
ikastaroak etxetik eman be-
har baitzituen eta ikasleen-
tzat hautazkoa baitzen etxe-
tik lan egiten jarraitzea. Itxialdi
garaian erredakzio
buruak proposatu ditu gaiak
eta ikasleek, haien etxean, ba-
kar-bakarrik egin behar izan
dute guztia; bai testuak idatzi,
eta baita albisteen berri ema-
teko ahotsak grabatu ere. Or-
dea, zaila izan den arren, Alci-
bar oso gustura geratu da
emaitzarekin. «Izan ere, ikusi
dut urtean zehar landutakoa
ikasi dutela, ulertu dutela he-
dabide bat zer den eta nola
funtzionatzen duen».

Itxialdian ikasleek izan du-
ten beste zailtasunetako bat
hizkuntzarena izan da, haieta-
ko gehien-gehienek frantsesa
baitute ama hizkuntza. Ho-
rrenbestez, gurasoek ezin die-

te lagundu euskarazko tes-
tuak idatzi edo zuzentzen.

EUSKARA-FRANTSESA

“Getaria’Part” hedabide elebi-
duna da, baina bertako kaze-
tari txikiek eskolan baino ez
dute euskara erabiltzen, be-
raz, ez du erronka makala
euskarako irakasleak egitas-
moa bi hizkuntzetan aurrera
eramateko. «Nola egin haien
ama hizkuntzatik abiatuta,
euskarazko oinarri sendo bat
osatzeko?», galdetu du Alciba-
rrek.

Euskarako irakaslearen la-
guntzarik gabe ezinezkoa li-
tzateke Internet bidezko irriati
hedabidearen proiektua gau-
zatzea, baina, gainontzean,
egitasmoa ikasleek gorpuzten
dute. Euskara erabiltzeko bel-
durra galtzea ezinbestekoa
dela deritzo Alcibarrek eta
kontent da haurrek duten ja-
rrerarekin: «Postak entzuten
badituzue konturatuko zarete
ez dutela beti ongi hitz egiten
euskaraz, baina ausartu dira,
eta hori garrantzitsua da. Hortaz,
euskara erabiltzeko
beldurra galtzeko ere balio
izan du».

Ausardia bakarrik ez, «eus-
kara erabiltzen dutenean pla-
zer hartzea» ere garrantzitsua
dela iritzi dio Alcibarrek. Ildo
horretan, ohartarazi du «eus-
karaz hitz egiten haurrek pla-
zer hartzen ez badute, mate-
matikak edo beste edozein
ikasgai bezala, euskara soilik
ikastetxearekin lotzen duten

zerbait bilakatzeko arriskua»
dagoela.

Elkarriketa batzuek salbu
(elkarriketatuak euskaraz ez
zekielako), lan gehienak eus-
karaz eta frantsesez argitara-
tu dituzte, beraz, lan bikoitza
egin behar izan dute, baina
irakasleen ustez, baliagarria
izan da: «Batzuek esaten zida-
ten zergatik gauza bera euska-
raz eta frantsesez idatzi? Ba
hor sortu dituzte bi hizkun-
tzen arteko zubiak, zeren bi
hizkuntzetan ari dira, haiena
eta ikasten ari direna».

JULES EDOUARD MOUSTIC

Ipar Euskal Herria anitz maite
duen eta Getarian bizi den Ju-
les Edouard Moustic umorista
frantsesa eskertu nahi izan
dute “Getaria’Part” erredakzio-
ko kideek. Beragatik ez balitz
proiektua ez litzatekeela gau-
zatuko dio Alcibarrek. Gehien-
bat Canal+ telebista katean
90eko hamarkadan eskain-
tzen zuen emankizun batega-
tik da ezaguna Moustic, baina
Euskal Herriarekiko duen mai-

tasuna ere oso ezaguna da. Be-
re amak euskaraz hitz egiten
zuen eta, bera Parisen hazi eta
hezi zenez, «dolu du euskara
ikasi ez izana», nabarmendu
du Alcibarrek.

Laguntza eske joan zenean
esku zabalik hartu zuen Mous-
ticek euskarako irakaslea eta
honako aholkua eman zion:
«Web telebista bat egitea kon-
plikatu da, kazetaritza, be-
harbada, haurrentzako eskola-
ko lanaz sobera hurbil da,
beraz, zuentzat egokiena irra-
tia da». Geroztik proiektu ba-
tzuk egin dituzte elkarrekin
eta beti laguntzeko prest ager-
tu da ospe handiko umorista.

Aurrera begira Getariako he-
rriarekin lotura duten albiste-
ak jorratzeko asmoa du “Geta-
ria’Part” hedabideak, adibidez,
surfaren inguruan zerbait
egin nahi dute. Aurtengo ikas-
turtean ez dute aukera izan,
beraz, heldu den urtean lan-
tzeko gaiak ere badituzte gor-
deta. Haatik, bitarteko gehiago
izateko ahaleginak egingo di-
tuzte. Alcibarrek azaldu due-
nez, «orain arte grabagailu bat
eta nire ordenagailua geni-
tuen bakarrik bloga zuzentze-
ko, baina proiektuan sakon-
tzeko nahasketa mahai bat
lortu nahi genuke, horrek as-
ko lagunduko bailuke kalitate-
an. Etorkizunean uhin irriati
bat sortzen ere lagunduko lu-
ke gainera».

**«Euskaraz hitz egiten haurrek plazer hartzen ez
badute, matematikak edo beste edozein ikasgai
bezala, euskara soilik ikastetxearekin lotzen
duten zerbait bilakatzeko arriskua dago»**

**Bordeleko akademiak antolatzen duen
Mediatiks lehiaketan parte hartzea erabaki
zuten Getariako ikasleek eta hiru sarituen
arteana dira. Itxialdian izan zuten sariaren berri**